

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2026ko MARTXOAREN 12a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita seigarren urtean, martxoaren hamabian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2026ko martxoaren 5ean afixatua izan zen eta 2026ko martxoaren 5ean posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	15	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES, Jean-Paul jauna, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k):

Falta zirenak:

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Tokiko zerga tasen finkatzea
- Larrazkena zahar-etxeko obretarako erresalbuak egiteko erabakia
- FKB aurrekontu nagusiaren bozkatzea
- Herri-kanpalekuko FKBren aurrekontu gehigarriaren bozkatzea
- Aurrekontu nagusiaren emaitzen erabilera
- Herri-kanpalekuaren aurrekontuaren emaitzen erabilera
- Tokiko zerga tasen finkatzea
- Aurrekontu nagusiaren bozkatzea
- Herri-kanpalekuko aurrekontuaren bozkatzea
- Bide-zor hitzarmena Enedis enpresarekin
- Hitzarmena Euskal Elkargoarekin HZE helgarritasunaren eta errepideen datuen bilketarako
- Sareen zerbitzu publikoen antolaketa lurralde mailan atxikitzeke mozioa
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2026ko otsailaren 2ko bilkuraren bilduma onartu du.

2026-16 DELIBEROA – TOKIKO ZERGEN TASA FINKATZEA – 7.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak aurkeztu du 1259 egoera. Honek barne hartzen ditu aurreikusi oinarriak, aurreikusi erreferentziazko produktuak, ordainsari laguntzak eta zerga erreformen oreka mekanismoak.

Herriko Kontseiluak,

Zergen Kode Nagusiko 1636 B sexies - 1636 B undecies eta 1636 A artikuluen arabera,

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

Deliberatu ondoan,

ERABAKI du 2026ko herriko tasak honela finkatzea:

- jabego eraikien gaineko lur zerga: % 30.17
- eraiki gabeko jabegoen gaineko lur zerga: % 39.53
- bizitegi zerga: % 15.79

EMAN dio jaun auzapezari

- erabaki hori prefeturako zerbitzuei jakinarazteko
- Finantza Publikoen Departamenduko Zuzendaritzari 1259 egoera osaturik transmititzeko, erabaki honen kopia batekin.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

2- 2026-17. DELIBEROA - LARRAZKENA ZAHAR ETXeko OBRETARAKO ERRESALBUAK EGITEKO ERABAKIA – 7.2 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak aurkeztu du 1259 egoera. Honek barne hartzen ditu aurreikusi oinarriak, aurreikusi erreferentziazko produktuak, ordainsari laguntzak eta zerga erreformen oreka mekanismoak.

Herriko Kontseiluak,

Zergen Kode Nagusiko 1636 B sexies - 1636 B undecies eta 1636 A artikuluen arabera,
Deliberatu ondoan,

ERABAKI du 2026ko herriko tasak honela finkatzea:

- jabego eraikien gaineko lur zerga: % 30.17
- eraiki gabeko jabegoen gaineko lur zerga: % 39.53
- bizitegi zerga: % 15.79

EMAN dio jaun auzapezari

- erabaki hori prefeturako zerbitzuei jakinarazteko
- Finantza Publikoen Departamenduko Zuzendaritzari 1259 egoera osaturik transmititzeko, erabaki honen kopia batekin.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

3.- 2026-18. DELIBEROA- 2025eko FKBren AURREKONTU NAGUSIAREN BOZKATZEA – 7.1 NOMENKLATURA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 2121-14 artikulua arabera, auzapezaren kontu administratiboa eztabaidatuko den bilkuran, Herriko Kontseiluak lehendakaria izendatuko du. Ondorioz, jaun auzapeza atera da eta Marie-Agnès HARISTOY andereak hartu du lehendakaritza.

2019ko Finantzen Legeko 242. artikulua arabera, esperimentazio denboran, Finantza Kontu Bakarrak (FKB) kontu administratiboa ordezkatzeko du baita ere kudeaketa kontua, dokumentu horiek gidatzen dituen neurriak indargabeturik. Gobernuak Finantza Kontu Bakarraren esperimentazioari buruz Parlamentuan aurkeztu bukaerako bilaneko proposamenetan oinarriturik, 2024rako Finantza Legearen 205. artikulua FKB orokortzen du berantenez 2026ko kontu aldiko.

.... kontu aldiko aurrekontu nagusia, zeinetarako lehendakariak Finantza Kontu Bakarra aurkeztu dizuen, bete da-(e)tik-(e)ra inbestimendu saileko operazioetarako, eta-(e)tik-(e)ra funtzionamendu saileko operazioetarako.

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

Kontabilitate-dokumentu horretatik emaitza hauek atera dira:

Inbestimendua: Gastuak 1 341 762.12. €; Irabaziak 1 268 152.14. €; RAR 911 963.00. €

Funtzionamendua: Gastuak 1 673 255.66. €; Irabaziak: 2 672 638.52 € ; RAR .0.00.€

Emaitza horiek 2025eko kontu aldian berriz ezarri dira.

Dagokion kontu aldiko aurrekontua eta aldaketa-erabakiak aurkeztuak izan ondotik, jaun auzapeza bozen denboran ateraturik, Herriko Kontseiluak eztabaidatu du 2025eko kontu aldiko auzapezaren Finantza Kontu Bakarrari buruz.

1° Finantza kontu bakarraren aurkezpena onartu du, gorago adierazi moldean laburbil baitaiteke;

2° Segurtatu du, bai kontabilitate nagusirako bai kontabilitate gehigarri bakoitzerako, baloreen identitatea kudeaketa-kontuaren adierazpenekin, gibelatzeari doakiona, kontu aldiko esplotazio-emaitzari eta hastapeneko eta bukaerako funtsei dagozkionak, kontu desberdinetarako aurrekonturako esleitu kredituei dagozkiona;

3° Betetzekoak diren gaineratikoen zintzotasuna kontuan hartu du;

4° Finkatu ditu gorago laburbildu behin betiko emaitzak.

Herriko Kontseiluak, jaun auzapezaren txostena entzun ondoan:

ONTZAT eman du 2025eko aurrekontuko Finantza Kontu Bakarra 2025erako

Horrela erabaki da gorago aipatu egunean, hilabeteen eta urtean. Hor ziren kideek erregistroan izenpetu dute. Egiatzatu zatirako.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozkan parte hartu ez duten pertsonak: 1
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

4-2026-19. DELIBEROA – HERRI KANPALEKUKO AURREKONTUKO 2025eko FKB ONARTZEA – 7.1 NOMENKLATURA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 2121-14 artikuluaaren arabera, auzapezaren kontu administratiboa eztabaidatuko den bilkuran, Herriko Kontseiluak lehendakaria izendatuko du. Ondorioz, jaun auzapeza atera da eta Marie-Agnès HARISTOY andereak hartu du lehendakaritza.

219ko Finantzen Legeko 242 artikuluaaren arabera, esperimentazio denboran, Finantza Kontu Bakarrak (FKB) kontu administratiboa ordezkatzen du baita ere kudeaketa kontua, dokumentu horiek gidatzen dituen neurriak indargabeturik. Gobernuak Finantza Kontu Bakarraren esperimentazioari buruz Parlamentuan aurkeztu bukaerako bilaneko proposamenetan oinarriturik, 2024rako Finantza Legearen 205. artikulua FKB orokortzen du berantenez 2026ko kontu aldiko.

2025eko kontu aldiko aurrekontu nagusia, zeinetarako jaun auzapezak Finantza Kontu Bakarra aurkeztu baitu, bete da 2025/01/01etik 2025/12/31ra inbestimendu saileko operazioetarako, eta 2025/01/01etik 2025/12/31ra funtzionamendu saileko operazioetarako.

Kontabilitate-dokumentu horretatik emaitza hauek atera dira:

Inbestimendua: Gastuak 5 834.72 €; Irabaziak 29 349.55€; RAR 6 000.00. €

Funtzionamendua: Gastuak 87 651.87 €; Irabaziak: 181 725.03 € ; RAR .0.00. €

Emaitza horiek 2025eko kontu aldian berriz ezarri dira.

Dagokion kontu aldiko aurrekontua eta aldaketa-erabakiak aurkeztuak izan ondotik, jaun auzapeza bozen denboran ateraturik, Herriko Kontseiluak eztabaidatu du 2025eko kontu aldiko auzapezaren Finantza Kontu Bakarrari buruz.

1° Finantza kontu bakarraren aurkezpena onartu du, gorago adierazi moldean laburbil baitaiteke;

2° Segurtatu du, bai kontabilitate nagusirako bai kontabilitate gehigarri bakoitzerako, baloreen identitatea kudeaketa-kontuaren adierazpenekin, gibelatzeari doakiona, kontu aldiko esplotazio-emaizari eta hastapeneko eta bukaerako funtsei dagozkionak, kontu desberdinetarako aurrekonturako esleitu kredituei dagozkionak;

3° Betetzekoak diren gaineratikoen zintzotasuna kontuan hartu du

4° Finkatu ditu gorago laburbildu behin betiko emaitzak.

Herriko Kontseiluak, jaun auzapezaren txostena entzun ondoan:

ONTZAT eman du 2025eko Finantza Kontu Bakarra

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 14
Bozkan parte hartu ez duten pertsonak: 1
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5-2026-20. DELIBEROA - AURREKONTU NAGUSIKO 2025eko EMAITZEN ERABILERA – 7.1 NOMENKLATURA

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

***Kontsideratuz** aurrekontuaren oreka aurreikusi behar dela,*

***Epaia** emanaz 2025eko kontu aldiko esplotazio-emaizaren erabileraz*

***Ikusiz** kontu administratiboak erakusten duela:*

Funtzionamendu-soberakina:	409 020.01
Erakarri soberakina:	590 362.85
Hots, metatu funtzionamendu-soberakina	999 382.86
Inbestimendu defizita:	73 609.98
Betetzekoak diren gaineratikoen defizita:	471 950.00
Hots, finantzamendu beharra:	545 559.98
ERABAKI da 2025eko kontu aldiko esplotazio-emaiz honela erabiltzea:	
Esplotazio-emaizta 2025/12/31n: SOBERAKINA	999 382.86
Erabilera gehigarriak erreserban (1068)	545 559.98
Emaizta funtzionamenduetara erakarri da (002)	453 822.88
Inbestimendu emaizta erakarri da (001): DEFIZITA	73 609.98

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

6-2026-21. DELIBEROA – HERRI KANPALEKUKO AURREKONTUKO 2025eko EMAITZEN ERABILERA – 7.1 NOMENKLATURA

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

Kontsideratuz aurrekontuaren oreka aurreikusi behar dela,

Epaia emanaz 2025eko kontu aldiko esplotazio-emaitezaren erabileraz

Ikusiz kontu administratiboak erakusten duela:

Funtzionamendu-soberakina:	47 486.12
Erakarri soberakina:	46 587.04
Hots, metatu funtzionamendu-soberakina	94 073.16
Inbestimendu soberakina:	23 514.83
Betetzekoak diren gaineratikoak defizita:	6 000.00
Hots, finantzamendu soberakina:	17 514.83
ERABAKI da 2025eko kontu aldiko esplotazio-emaiza honela erabiltzea:	
Esplotazio-emaiza 2025/12/31n: SOBERAKINA	94 073.16
Erabilera gehigarriak erreserban (1068)	0.00
Emaiza funtzionamenduetara erakarri da (002)	94 073.16
Inbestimendu emaiza erakarri da (001): SOBERAKINA	23 514.83

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

7.- 2026-22 DELIBEROA- 2026ko AURREKONTU NAGUSIAREN BOZKATZEA – 7.1 NOMENKLATURA

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

Honela **BOZKATU** ditu 2026ko kontu aldiko jatorrizko aurrekontuko proposamenak:

INBESTIMENDUA	
GASTUAK	1 310 309.98
IRABAZIAK	1 782 259.98
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	2 293 035.02
IRABAZIAK	2 293 035.02

OROITARAZTEKO, AURREKONTUA OROTARA:	
INBESTIMENDUA	
GASTUAK	2 222 272.98 (betetzekoak diren 911 963 000.00 gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	2 222 272.98 (betetzekoak diren 440 013.00 gaineratikoak barne)
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	2 293 035.02 (betetzekoak diren 0 gaineratikoak barne))
IRABAZIAK	2 293 035.02 (betetzekoak diren 0 gaineratikoak barne))

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

8-2026-23. DELIBEROA – HERRI KANPALEKUKO 2026ko AURREKONTUA BOZKATZEA – 7.1 NOMENKLATURA

Biltzar erabakitzailea bildu da Antton CURUTCHARRY jauna mahaiburu zela,

Honela **BOZKATU** ditu 2026ko kontu aldiko jatorrizko aurrekontuko proposamenak:

INBESTIMENDUA	
GASTUAK	19 722.66
IRABAZIAK	25 722.66
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	223 873.16
IRABAZIAK	223 873.16

OROTARAZTEKO, AURREKONTUA OROTARA:	
INBESTIMENDUA	
GASTUAK	25 722.66 (betetzekoak diren 6 000.00 gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	25 772.66 (betetzekoak diren 0 gaineratikoak barne)
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	223 873.16 (betetzekoak diren 0 gaineratikoak barne)
IRABAZIAK	223 873.16 (betetzekoak diren 0 gaineratikoak barne)

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK:

9- 2026-24 DELIBEROA: ENEDIS ENPRESAREKIN EGINEN DIREN HITZARMENEN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari jakinarazi dio ENEDIS enpresak egin obren kariatara,

- transformadore berri bat ezarri dela AD 173 lursailean, Gaineko karrikan
- REMBT kutxatila, aitzinaldeko paretan kokatuko dela, AD – 171 lursaila

Herriko Kontseiluak, auzapezak proposaturik, eta deliberatu ondoan:

ONARTU du kadastrako AB 171 lursailean bide-zor bat ezartzea 10 €-ko ordainsariarekin gorago aipatu kutxatila plantan ezartzeko eta bide-zor hitzarmen bat egitea

Esku uzte hitzarmen bat egitea transformadore publiko bat instalatzeko AD 173 lursailean, 400 €-ko kalte-ordainaren truk,

BAIMENA eman dio auzapezari gai horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko, bereziki

- AB 171 lursailari doakion bide-zor hitzarmena
- esku uzte hitzarmen bat egitea transformadore publiko bat instalatzeko AD 173 lursailean

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

10. 2026-25. DELIBEROA – 5 BIDE ZOR HITZARMENEN ONARTZEA ETA IZENPETZEA ENEDIS ENPRESAREN FABORETAN KADASTRAKO AB ZATIKO 139, 182, 186 ETA 211 ZENBAKIAK ETA AC ZATIKO 108, 109 ETA 296 ZENBAKIAK – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezaren txostenaren arabera, kadastrako AB 182 lursailean transformadore bat ezartzeko, kadastrako AB 211 lursailean transformadore bat ezartzeko, kadastrako AB 139, 186 eta 211 lursailetan lurpeko linea elektriko bat, kadastrako AB 139, 182 eta 186 lursailetan lurpeko linea elektriko bat eta kadastrako AC 108, 109 eta 296 lursailetan lurpeko linea elektriko bat instalatzeko proposamenari buruz;

Kontuan harturik, beraz, ENEDISi iraganbide-eskubidea eman behar zaiola, aipatu transformadore eta lurpeko linea elektrikoak instalatzeaz gain, hoditeria elektriko guztiak ezartzeko;

Kontuan harturik ENEDISi eman eskubideen ordainez, 250,00 €-ko (berrehun eta berrogeita hamar euro) kalte-ordain finko bakarria erregistratuko dela notario-agiri bidez kadastrako AB 182 lursaileko transformadorerako;

Kontuan harturik ENEDISi eman eskubideen ordainez, 10,00 €-ko (hamar euro) kalte-ordain finko bakarria erregistratuko dela notario-agiri bidez kadastrako AB 211 lursaileko transformadorerako;

Kontuan harturik ENEDISi eman eskubideen ordainez, 10,00 €-ko (hamar euro) kalte-ordain finko bakarria erregistratuko dela notario-agiri bidez kadastrako AB 139, 186 eta 211 lursailetak lurpeko linea elektrikorako;

Kontuan harturik ENEDISi eman eskubideen ordainez, 10,00 €-ko (hamar euro) kalte-ordain finko bakarria erregistratuko dela notario-agiri bidez kadastrako AB 139, 182 eta 186 lursailetak lurpeko linea elektrikorako;

Kontuan harturik ENEDISi eman eskubideen ordainez, 0,00 €-ko (zero euro) kalte-ordain finko bakarria erregistratuko dela notario-agiri bidez kadastrako AC 108, 109 eta 296 lursailetak lurpeko linea elektrikorako;

Kontuan harturik parte bakoitzaren (Herriko Etxea-ENEDIS) elkarrenganako engaiamenduak finkatzen dituen hitzarmena, ENEDISi obrak hasteko baimena ematen diona.

Hori jakinik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari, aho batez,
- esku uzte hitzarmen bat sinatzeko transformadore bat instalatzeko kadastrako AB 182 lursailean,
- transformadore bat instalatzeko kadastrako AB 211 lursailean,
- lurpeko linea elektriko baten instalatzeko kadastrako AB 139, 186 eta 211 lursailetan,
- lurpeko linea elektriko baten instalatzeko kadastrako AB 139, 182 eta 186 lursailetan,
- lurpeko linea elektriko baten instalatzeko kadastrako AC 108, 109 eta 296 lursailetan, baita ere gai horri buruzko dokumentu oro.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 15
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK:

11-2026-26. DELIBEROA - EUSKAL ELKARGOKO TURISMO BULEGOAREKIN MUTUALIZAZIO HITZARMENA ANIMAZIO TURISTIKORAKO – 5.7 NOMENKLATURA

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.5214-16 1. artikulua arabera:

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

"Herri elkargoak eskubide osoz betetzen ditu, kide diren herrien orde, talde bakoitzari (...) dagozkion eskumen hauek: turismoaren sustapena, turismo bulegoen sortzea barne, animazio turistikoari kalterik egin gabe, eta hori eskumen partekatua da, L.111-4 artikulua arabera, bere zerga sistema duen herriarteko kooperazio erakunde publiko partekatu bateko herriei batera".

Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean, animazio turistikoaren eskumena Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren eta Baigorriko Herriko Etxearen artean partekatzen da.

Eskumen partekatu horren inguruan hitzarmen bat izenpetzea proposatu da mutualizazio-desmarta baten kaltetara.

Hitzarmen horren helburua da:

- Animaziorako mutualizazio-moldeak finkatzea
- Partearen eskumenak eta teknika eta finantza moldeak mugatzea

Mutualizazioaren erronka eskala-ekonomien bidez eraginkortasuna lortzea edo baliabideak partekatzea.

Mutualizazioak diru-ekarpenak barne har ditzake Baigorriko Herriko Etxeak antolatu animazio turistikoaren eginkizunen kaltetara.

Ekintza komunak behar bezala obratzeko eta Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren estatutuen 10-2 artikulua arabera, Sailkatu Guneen Tokiko Batzorde bat sortu da Baigorri.

Batzorde horren sortzeko eta funtzionatzeko moldeak Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren eremuan sailkatu guneak sustengatzeko animazio eta komunikazio eginkizunari buruzko esku-hartze gutunean aipatuak dira, eta hitzarmen honi erantsirik da.

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoak dirulaguntza eman dezake Baigorriko gune sailkatuetako animazioetarako.

Animazio batek dirulaguntza hori ukan dezake Elkargoko Zerbitzuen Tokiko Zentroak proposatzen badu eta Euskal Elkargoko Turismo Bulego Zuzendaritza Batzordeak onartzen badu, Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren eremuan sailkatu guneak sustengatzeko animazio eta komunikazio eginkizunari buruzko esku-hartze gutunaren arabera.

Finantza parte hartzea izan daiteke:

- animazio turistikoaren komunikazioari lotu gastuen finantzaketa zuzena
- Baigorriko Herriko Etxeari finantzaketa zuzena, giza eta teknika baliabideak esku ezartzen baititu.

Hitzarmen bat urte baterako egiten da, eta adierazi gabe berriztagarria da.

Herriko Kontseiluak, azalpen hori entzun ondoan eta deliberatu ondoan, aho batez:

- **ONARTU du** Baigorriko animazio turistikoaren mutualizazio moldeak finkatzen dituen hitzarmena.
- **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari edo haren ordezkari hitzarmen hori izenpetzeko baita ere horren obratzeko beharrezkoa den dokumentu oro.

Kargutik diren kideen kopurua: 15

Hor zirene kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK:

12-HITZARMEN BATEN EGITEA EUSKAL ELKARGOAREKIN PUBLIKOA ERREZIBITZEN DUEN EGITUREN HELGARRITASUNARI ETA HERRIKO ERREPIDEEN BURUZKO DATUEN BILTZEKO – 5.7 NOMENKLATURA

GRALL zerbitzua: Euskal Hirigune Elkargoak kitorik esku utzi zerbitzuaren erabiltze-hitzarmena

Jaun auzapezak kontseiluari jakinarazi dio:

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L2143-3. artikulua arabera, Euskal Hirigune Elkargoak eta 5 000 biztanle baino gehiagoko lurraldeko 15 herriek helgarritasunerako herriarteko batzorde bat eta herriko batzordeak sortu dituzte.

Batzorde horien eginkizuna:

- *Eraikinetako, bideetako, eremu publikoetako eta garraioetako helgarritasunaren egoera finkatzea.*
- *Ahalmen urritasuna duten pertsonen edo elbarritasun motaren arabera mugikortasun urritasuna duten pertsonen helgarritasuna zehaztea ibilbide nagusietarako; Garraioaren Kodearen L1112-1 artikuluan finkatu lehentasunezko geldialdi lekuen inguruan, berrehun metroko inguruan.*
-

Aldi berean, MBL legeak xedatzen du beren lurraldean lehentasunezkoa den garraio publikoaren geldialdi bat gutienez duten kolektibitate guzietan behar dituztela eraikinen eta errepideen datuak bildu geldilekuaren 200 m-ko inguruan.

Bilketaren helburua erabiltzaileari informazioa ematea baita, Euskal Elkargoak eta 5 000 biztanle baino gehiagoko herriak biltzen dituen CCA-CIAko hautetsiek, lurralde osorako tresna numeriko komuna eta denen eskura dagoena erabiltzeko beharra aipatu dute.

Zerbitzuek proposaturik, CCA-CIA sareko hautetsiek GLORYTECH enpresak ekoiztu Grall aplikazioa hautatu dute, erabiltzaileari informazio geolokalizatuko zerbitzua eskaintzen baitu. Hautu hori egin da, besteak beste, arrazoi hauengatik:

- Aplikazioa sortzeko hiru urteko esperimentazioa egin zen CEREMA, Glorytech eta Euskal Elkargoaren arteko lankidetzaren kariatara. Lan horri esker, Glorytech enpresak helgarritasunaren hobetzeko erreferentzial nagusiaren arabera araberakotasuna lortu du, eta horrela, proiektuan parte hartzen duten ahalmen urriko pertsonen elkarten beharrei arrazoiak ihardetsi die.
- Aplikazioa manatu daiteke bozaren bidez eta horrela erabiltzaile guztiek errazki erabili dezakete.
- Testu guztiak 64 hizkuntza baino gehiagotara berehala itzul ditzake, besteak beste, euskarara eta gaskoira.
- %100ean kitorik da erabiltzaileentzat eta konturik sortu gabe erabili daiteke.
- - Glorytech enpresak ez du datu pertsonalik biltzen edo saltzen.
- Aplikazioari esker erabiltzaileek informazio geolokalizatua ukaiteko parada dute. Erabilera hainbat protokolo erabiltzen dira (GPS, Bluetooth, QR kodea, QR Light, NFC). Eduki mota oro onartzen ditu (testua, irudiak, bideoa, audioa, estekak, fitxategiak).
- Aplikazioaren polibalentziari esker, kolektibitateek erabilera kasu frankori ihardetsi dezakete (informazioa, abisua ematea, animazioa...), bai eraikinen barnean bai kanpoan.
- Obragina arrunt autonomoa da Grall informazioa eta haren edukia sortzeko.
- Glorytech enpresak mundu mailako garapena du xede.
- Glorytech enpresak bere aplikazioaren karbono-eragina konpentsatzen du arbolak landatuz sortu informazio puntu bakoitz.

CCA-CIA sareko hautetsiek nahi baitzuten zerbitzu berri baten plantan ezartzeak aurrekontuan ukanen zuen eragina ahal bezain txikia izatea, GRALL abonamendua mutualizatzeko aterabide bat ikertu dute.

Ikerketaren ondorioz, eta zerbitzuak arrazionalizatzeko, ongi antolatzeko eta elkartasuna kausitzeko xedez, CCA/CIA sareko hautetsiek erabaki dute GRALL zerbitzuaren eskuratzeko eta esku uzte baldintzak printzipio hauetan oinarritu behar zirela:

- Euskal Hirigune Elkargoak GRALL zerbitzua eskuratzeko du eta lurraldeko herrien eskura utziko;
- GRALL zerbitzuaren erabiltzeko urteko gastuak Euskal Elkargoaren eta 5 000 biztanle baino gehiagoko 15 herrien (Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Hiriburu, Kanbo, Mugerre, Senpere, Urruña, Uztaritze eta Ziburu) artean banatuko dira; 5 000 biztanle baino gehiagoko beste 143 herriek zerbitzu hori urriarik ukan dezakete.

Informazio gisa, 2025. urterako, hartu suskripzioaren abonamendu-tartea 19 000 €-koa (BEZa gabe) dela estimatu da.

Euskal Elkargoaren eta herrien arteko banaketa printzipio honen arabera egiten da:

- Abonamenduaren balioa 19 000 €-tan (BEZa gabe) estimatua urtean
- Euskal Elkargoaren parte finkoaren kenketa -13 000 €-tan (BEZa gabe) estimatua

- Hots, partekatzeko 6 000 €-ko (BEZa gabe) hondarra, % 70 Euskal Elkargoarentzat eta % 30 5 000 biztanle baino gehiagoko herrientzat.

-

Bukaeran, hau aurreikusi daiteke:

- 17 200 € (BEZa gabe) Euskal Elkargoarentzat
- 1 800 € (BEZa gabe) 5 000 baino gehiagoko herrientzat,
- Kitorik 5 000 biztanle baino guttiagoko biztanle dituzten herrientzat.

-

Hitzarmenak (ikus modelo eranskinetan), 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina aplikagarri diren baldintzak finkatzen ditu GRALL zerbitzua herriaren esku uzteko.

Ikusirik 2019ko abenduaren 24ko 2019-1428 Legea, mugikortasun orientazioei buruzkoa, eta bereziki 27. artikulua;

Ikusirik Garraioen Kodea, bereziki L. 1112-1 artikulua;

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki L. 2143-3, L. 5216-5 eta L. 5211-10 artikulua;

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 5211-4-3. artikulua;

Ikusirik 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefetaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren sorkuntzari buruzkoa;

Ikusirik Euskal Elkargoko Kontseilu Iraunkorraren 2024ko urriaren 22ko deliberoa, zeinen bidez Grall zerbitzuaren kide diren herriei esku uztea onartzen baita;

Herriko Kontseiluari galdegin zaio:

- **ONARTZEA** Euskal Hirigune Elkargoak eskuratu GRALL zerbitzua esku uzteko hitzarmena (ikus atxikirik);
- **BAIMENA ematea** auzapezari edo haren ordezkari hitzarmena izenpetzeko beharrezkoa den aldi oro, baita ere doakion agiri oro.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 15

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK:

13-HERRIKO KONTSEILUAREN MOZIO PROPOSAMENA LURRALDE MAILAN SAREKO ZERBITZU PUBLIKOEN ANTOLAKETA ATXIKITZEKO BEHARRAREN BERRIZ ERRATEKO, ERAGINKORTASUN, HURBILTASUN ETA ELKARTASUN MAILAN EGOKIENA DELAKO – 9.1 NOMENKLATURA

Auzapezak oroitarazi du Departamenduko energia sindikatuek, federazio nazionalen bildurik, 2025eko abenduaren 11n bildu zirela Biltzar Nagusia, eta Gobernamentuak pentsatu deszentralizazio ekintza berriaren proiektuari ihardukitzeko mozio bat onartu zela.

Mozio hoti TE64 Sindikatu Batzordeari aurkeztu zitzaion 2026ko otsailaren 14an, larunbatarekin, eta horrek ordezkatu herri guzietako ordezkarien boz bidez onartu zuen.

Helburua da Departamenduei "Hurbileko Sareen Buru" eginkizuna emateko printzipioaren kontra egitea, numerikoaren, uraren, elektrizitatearen eta gasaren sektoreei dagokiena.

Iragarpen horrek Energia Sindikatuak galdzekarazten ditu bereziki "buru" nozioaren erranahi zehatzik ez dagoela kontuan harturik.

Garrantzitsua da, hein horretan, oroitaraztea elektrizitate-banaketa herri blokeari esleitu eskumenen artean dagoela 1906ko legeaz geroztik, tokiko zerbitzu publiko horren sortze-ekintza baita.

Gainera, herriak dira sare horren jabe, eta 21 000 km luze baino gehiago da departamentuan, eta 1,4 miliar euro baino gehiagoko balioa duen aktiboa da; TE 64k ENEDISekin izenpetu kontzesio-kontratua kudeatzen du, bere herri-aginduen kariatara.

Horregatik, egoki litzateke Herriko Kontseiluak TE64k finkatu mozio-proiektuari buruzko jarrera hartzea.

Herriko Kontseiluak, Jaun auzapeza entzun ondoan,

2026ko MARTXOAREN 12ko bilduma

- *Lehen Ministroak 2025eko irailaren 9an hautatua izan ondotik abiatu deszentralizazio ekimen berria kontuan harturik, 2026ko martxoko herri-hauteskundeak aitzin Parlamentuan aurkeztu lege-proiektu baten bidez gauzatuko dena, politika eta eskumen publiko batzuk betetzerakoan norik zer egiten duen argitzeko, bereziki tokiko mailan;*
- *Kontuan harturik 2025eko azaroaren 13an Albiko Departamentu Biltzarrean egin bukaerako hitzaldian Lehen Ministroak egin adierazpena, azaroaren 24an Departamentu Kontseiluetako presidente guziei igorri gutun batean errepikatua Gobernamentuak departamentua "hurbileko sareen buru" gisa aitortzeko xedea baieztatzeko, baita ere numerikoaren, uraren, elektrizitatearen eta gasaren sektoreetan esku hartzeko gaitasuna indartzeko xedea baieztatzeko, "beste kolektibitate, herri bloke eta eskualde mailen obratzek errespetatuz";*
- Kontuan harturik energia banaketa (elektrizitatea, gasa, beroa eta hotza) funtsezko tokiko zerbitzu publikoa dela, eta horrek justifikatzen dituela sektore horretako eskumenak, haien izaera operatiboa kontuan harturik, herri blokeko kolektibitateek (herriek eta herriarteek) gauza dezaten, tokiko errealitatek eta herritar-kontsumitzaileen beharretatik ahal bezain hurbil;
- *Kontuan harturik sare publikoko zerbitzuen eta tokiko politika publiko batzuen arteko lotura hertsia, hala nola hirigintza eta garapenari lotuak direnak, zeinen obratzea herri blokearen eskumenen barne baitago;*
- *Herri lurraldean elektrizitate-banaketa sareetan inbestimendu-behar handiak direla kontuan harturik, kalitate-maila egokia atxikitzeko eta lurralde-hausturak saihesteko, baita klima-aldaketaren ondorioei gero eta gehiago eragiten dieten azpiegituren erresilientzia eta segurtasuna hobetzeko ere;*
- *Sindikatu Teknikoek beren kideen izenean energia-trantsizioa obratzeko duten eginkizun operatiboa kontuan harturik, bereziki ingeniartza tekniko berezituaren bidez;*

ESTIMATU du:

Departamenduari onartu buru eginkizuna elektrizitate eta gas sareetarako, horiek legegileak herri blokeari esleitu eskumenak baitira, deszentralizazio ekintza berriaren helburuaren kontra egiten duela, horrek eskumen batzuen erabilera argitzea helburu baitu;

- Kontrara, Energia Sindikatu handien, antolakuntza aginteen edo herriak borondatez kide diren egitura berezituaren bidez, elkartasuna, hurbiltasuna eta eraginkortasun lehenestea beharrezkoa dela operazio mailan, lurralde haustura berriak sortzeko arriskua hartu ordez;
- Finantza Publikoak zaintzearen kontrakoa dela beren lurraldeen beharrei eta erronka nazionaleri erantzuteko urte anitzeko inbestimendu-plan anbiziotsuak plantan ezarri dituzten sindikatu berezitu handien egungo antolaketa azpiz gora ezartzea.

GOBERNAMENDUARI GALDATU DIO:

- Hurbileko sareetan, bereziki energia mailan, buru eginkizuna Departamenduei emateko proiektuari uko egitea;
- Herri blokearen eskumenak atxikitzea, deszentralizazio ekintza berriaren izpirituarekin bat eginez, eta horrek ez du dudan ezarri behar ongi dabilzan eta eraginkorrak diren antolaketa eta ingeniartza;
- Sindikatu berezituaren ekintza-moldeak ez zorpetzea, bereziki haien eskumenetarako hartu irabaziak. Haien baliabideak sindikatu horiek egiten dituzten misioekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuetarako apaltzea kontraproduktiboa litzateke, sareetan eta energia eta ekologia trantsiziorako ekimenetan inbestimendua tratatuko lukeelako, Gobernamentuaren engaiamendu eta helburuen kontra.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 15
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /

ABSTENTZIOAK:

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

- ❖ 2026/02/03ko 2. erabakia Mailuxenea etxearen salmentaren kariatara lehentasunez erosteko eskubideari buruz
- ❖ Zerbitzu Publikoen Etxearen alokatze-kontratuaren izenpetzea 2026/02/26an

GAI OROTARIK

!

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxo jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartu deliberoak 16tik 28ra zenbakituak dira.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>